

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak enplegatu publikoen hizkuntza-ezagutzako azterketetan izena emateko epea zabaldu du

Epea urriaren 3an amaituko da, eta azterketak azaroan egingo dira

Martes, 27 de septiembre de 2011

Nafarroako Gobernuak, Administrazio Publikoen zerbitzura dauden langileek euskara, ingelesa, frantsesa eta alemaneko ezagutza baloratzeko azterketak egiteko deialdia egin du, administrazio horietan lanpostuak betetze aldera. Azterketa gainditzen duten pertsonak gainditutako maila egiaztatzen duen ziurtagiri bat jasoko dute, lau urteko baliozkotasuna dutena.

Izena emateko epea datorren urriaren 3an amaituko da eta idatzizko nahiz ahozko azterketak azaroan hasiko dira, goizez.

Izen-ematea Nafarroako Administrazio Publikoen Nafarroako Institutuaren (NAPI) Euskara Zerbitzu eta Hizkuntza Komunitarioen bulegoetan eta Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokorrean egin daiteke; [online](#); [posta elektronikoz](#) [Internet](#) bidez deskarga daitekeen eskaera atxikiz; edo postaz.

Azterketa horiek titulu ofizialik ez duten enplegatu publikoentzat diseinatuta daude eta beren hizkuntz maila egiaztatu nahi dutenak Nafarroako Administrazio Publikoetan lanpostuak betetze aldera, bai burutzarako merezimendu gisa edo bai hizkuntzen ezagutza nahitaezkoa edo baloratua den lanpostuak bete nahi dituzten lehiaketetarako.

[Deialdi honen oinarriak](#) Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, iragan irailaren 2an.